

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren geroa ziurtatzeko, nahitaezkoa da funtsezko jarduerak edukitzea. Gure kasuan, ondorengoak dira:

Lehenik, langileak kontratatu behar ditugu, baina ez digu edozein langilek balio izango. Bat, bizikletari bere osagai elektrikoak jartzeko behar dugu. Bizikleten beste prozesuez arduratzeko (korreosera transportatu, materialak ekarri, neurri batzuk hartu...) ETT baten bidez kontratatuko ditugu langileak, izan ere, gure enpresak ez du behar den kapitala langile direktu asko edukitzeko. Gerora begira gure mugetako bat langile direktu gehiago izatea izango da.

Marketina eta sare sozialak gaur egungo edozein enpresaren gai nagusiak dira. Gure kasuan lan horretaz arduratzeko pertsona egokia Beñat dela uste dugu, izan ere, abileziak ditu plataforma hauetan eta erreztasunez bete ahal ditu gure beharrak.

Enpresaren diru kontuak ondo eramatea beharrezkoa da hurrengo urteetan arazorik ez izateko. Hautatutako pertsona matematikan abila izan behar da, gure kasuan Laura da pertsona egokiena matematikan eta diru administrazioan zihurtasun handiz jokatzeko duelako.

Urteen poderioz bizi-irauteko edozein enpresak komunikazio ona ezarri behar du bezeroen eta langileen artean, are gehiago gure kasuan. Hori dela eta, Xabat aukeratu dugu esparru honen buru, izan ere, abilezia eta enpatia handia dauka beste pertsonekin hitz egiterako garaian.

Diseinua ere beharrezkoa da enpresa ororen garapenerako, are gehiago, bisualki asko ikusten den produktu bat merkatuan ezartzeko. Gure kasuan Unai da pertsona egokiena, izan ere, marrazketan trebetasun handia dauka eta gure beharrak lasai asko asetuta ahal ditu.

